

Tamara

Xabier Mendiguren Bereziartu

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1997



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpan*



Tamara

Xabier Mendiguren Bereziartu

Julene Azpeitia 10. ipuin lehiaketa

1997

2. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Xabier Mendiguren Bereziartu (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

-I-

Argien bristada gorri-urdinen deiari amore eman eta atera hurbiltzen zara. Heldulekuan eskua astiro pausatu, zirrikitu bat ireki eta urrin-bafada sarkor batek oratzen zaitu sudur-mintzetatik, maitasun ezinezkoak deitoratzen ari den cantaoreak zulakatzen dizkizu belarriak eta ilunpetarako urratsak ematen dituzu derrigorturik. Aurrera egin ahala, barneko argitasun gorriak piku-mamia bezala zabaltzen dizu ilunpea. Ispiluetako argi-joko artean, gizaki garai makurtuak eta minigonapeetako zango mamitsuak nabarmentzen dira leotardoetan inbututurik. Zutabearen babesean aulki garai biribilak egiten dizu abegia eta bertan eseri zara ahalik eta eratsuen. Lehendabiziko urduritasun-unea gainditu, zerbitzari serioari kuba bat eskatu (Bacardirekin, noski), eta txamarraren sakeletan txaplaka ibili ondoren, Winstona atera, eta, txiskeroaz su eman diozu, ezker-eskuin begiratu.

Bi zango luze eta beltzen gainetik begi handi pare batek arakatzen zaitu; begiratu-antxa egin diozunean barratik ukondoa erretiratu eta zuzen-zuzen zuregana jo du. "Zer moduz? Tatiana nauk. Eta hi?" Baina zu hotz zaude, ez duzu gonbidatzen eta azkenean musika-jogailuko berrehun pezeta baizik ez dizkizu atera.

Lainarte gorri batetik bezala pixkanaka botila ongi apailatu eta tamaina desberdinetako kristalontzien lerroak apaletan zehaztu egin zaizkizu. Zoko bakoitzean, ahopean hizketan, bikoteak ugalduz doaz. Besaulki apal batetik bodyak ozta-ozta haragiak eusten dizkion neska ilebeltz bat zutitu eta takoi-kolpe ausartez hurbildu zaizu. "Guapooo!" jaurti dizu lausengari, angora-kateme baten gisara gorputzari eraginez. Ana duela izena esan eta zurea galdetu dizu. Portugesa dela aitortu eta "Bai kolonia ona!" bota dizu zure trusardiaren bafada bat lepo aldetik usnatuz. Poliki-poliki bere haragi guria sentitu duzu izterraren kontra, bular-puntaz paparraldean presio egin dizun bitartean. Chanel-usain sarkorak inguratu zaitu eta tabakoaren ke urdinxkak, perfumeak, cantaorearen deitoreek eta urdailean metatuz doan edariak egin dizun kilimak zorabio ttiki llabur batean harrapatu dizute burua. Pixka bat behartuta agian baina irribarretxo bat egin diozu. Belaun biribil bat sentitu duzu izter artean. Berehalaxe zerbait hartzera gonbidatzeko eskatu dizunean, eta ezin izan diozu ukatu. Zeu ere lasaiago zaude eta gorputzean inurrien joan-etorria bezalako

xirri-xirri bat sumatzen duzu. Tirandura laxotu eta erosoago sentitzean, mugitzen hasten zara. Hitz gordin batzuk jaregin dizkizu belarrira. Barre-algara bati jaregin diozu burua atzera botaz. Ongi pasatzearen promesa egin dizu. Lasaitu eta nahi duzuna egitearena. Baina ez zara ausartu. Halere, galai agertu nahi izan duzu eta kopa bat zerbitzatzeko eskatu diozu bar-mutilari. Likido ilun-urrekara bat isuri du kristal landuzko botila lauki batetik. Zer den galdegitean tea dela aitortu dizu neskak. Alkoholdun edariaz gonbite guztiak egitea ezinezkoa litzatekeela esan dizu. Arrazoizkoa iritzi diozu. Trago horregatik agian bi hosto berde litxartuko dizkizutela kalkulatu eta amorru pittin bat sentitu duzu. Baina legea lege, pentsatu duzu zeure barrurako, eta egun bat egun bat dela. Portugesak eskua gerrikoan ezarri eta begietara begira-begira, zirkin lizunekin sabelaren kontra erakarri zaitu. "Gaur ez" jalki diozu hotz eta motz, harremanaren abiadurak ikaratuxerik. Eskerrik asko esan eta zetaz estaliriko sorbalda trinko biribilak argi gorritan urruntzen ikusi dituzu.

Txiskeroari klikateko pare bat atera ondoren, beste Winston bat piztu duzu; kearen kiribil urdinak gorantz hastean, bigarren kuba (Bacardirekin, noski) eskatu diozu, bi ahurrez lokietako ilea leuntzen ari zen zerbitzariari. Kantari flamenkoaren lanturuen gaintetik izotz-koskoek kristalaren kontra atera duten hots freskoa entzun duzu. Gero trago bat hartu, eta esku berean zigarroa eta kopa dituzula, edari ilunari ke artetik begira zauden bitartean, izotz-koskoei klin-klin eraginez, norbaitek larruzko jakaren mahuka hartu eta "Oso ukitu atsegina du" jaregin dizu albotik. Ustekabean harrapatu zaitu, eta, jantzi horrek badituela urte batzuk esatea baino erantzun aproposagorik ez zaizu bururatu, trago bizkor bat hartu eta irribarre behartu samar bat eginez. Bira egin duzu aulkian ezkeraldera.

Oraingoan zeuk hartu duzu aurea eta ile kiribil bihurrituzko mataza kulunkariaren azpian bi begi beltz eta bizirekin egin duzu topo. Nola duen izena galdetu eta "Tamara" entzutean Hegoaldearen musikak gainezkatu dizkizu belarriak, frantses-doinu nabariarekin. Zuk zeurea esan behar izan diozu ordainetan. "Imanol". Poliki-poliki hurbildu eta bioleta-urrian moduko batez inguratu zaitu. Bi begi garbi handi altxa eta irribarre zabala egin dizu. "Frantsesa?" galdetu diozu, zigarroa eskainiz, eta, berak buruari eragin, eta ezezko irribarretsua eman dizu. "Ez dut erretzen". Orduan, lehen hurbiltzearen porrota konpentsatu nahiz edo, zerbait hartu nahi al duen galdetu diozu. Baietz erantzun dizu eta keinura adi zegoen zerbitzariak kristal landuzko botila laukitik likido ilun-urrekara zerbitzatu dio kristalezko kopa luzanga batean. "Alkoholik gabea" esan diozu, noizbait ikasitakoaz baliatu eta neskari abantaila hartzeko. "Ez dut inoiz alkoholik edaten", esateak intriga apur bat sortu dizu. Jakin-minak nongoa den galdetzera eraman zaitu, eta "Marokoarra, baina Parisen hazia" erantzun dizu. Orduan istorio luze bat kontatu behar balu bezalako keinua eginez, bere kopa luzanga eskuan hartu eta zure edalontzi luzearekin topa egitera gonbidatu zaitu. Ez diozu presarik sumatzen eta horrek harritu egiten zaitu bere lanbidean.

Berriketan hasi zara, beste trago bat edan eta ke-bafada batzuk jaregin dituzu gorantz, begi fresko horiei kalterik egin nahi ez bazenie bezala. Burua eraistean ile-mataza bat erori zaizu buruaren hegal batetik. Neskak hatz luze bitxiztatu batez delikatuki jaso eta belarri atzera pasa dizu; begiak beheratzean bular parean gelditu eta alkandora hartu dizu, matxarda batean bezala hatzak eta bestearen kontra leunki igurtziz. "Seda, kolore fina" esan, eta ehun, mihise eta oihal onak zeinen atsegin zaizkion komentatzen dizu. Sorbaldak eta bular-

erroak agerian uzten dizkion blusa urdinezko kanesuz ohartu zara. Begiek behera ihes egin eta larru beltzeko minigona estuarekin topo egin dute. Zure miaketaz konturatzean pauso bat atzera eman, eta diskrezioz orratz-takoidun zapata beltzeraino erakutsi dizu. "Ez dik ezer nabarmentzen baina ezin hobeki zaukak dena" pentsatu duzu zure golkorako. "Approuvée?" galdetu dizu eskuaz belaunean nylonezko galtzerdia lisatzen duen bitartean. Gero barre-algara bat ezkutatu nahian bezala, buruaz kolpetxo bat paparrean eman, eta, sekretu bat kontatu nahi balizu bezala, ezpain doi-doi koloreztatuak belarrira hurbildu eta esan dizu: "Ez haiz ohartu baina, nola esaten duk?... échelle txiki bat zaukak". "Karrera bat?" esan diozu lagunduz eta gero lasaitzeko asmoz: "Ez dun batere igartzen". Biok trago bana hartu duzue, konplizitatea ospatzeko txin-txin egin ondoren. Bat-batean barre-purrustada bat atera zaizu eta edaria kontrako eztarrira joan zaizu. Zalapartan aulkitik zutitu eta ahotik isuritako tantez larruzko jaka busti duzu. Neskak bira eman eta zutabearen atzeko besaulkian poltsa arakatzeari ekin dio. Bitartean makurturik ari dela zango zuzen eta izter trinkoak ikusi ahal izan dizkiozu. Irrits-kolpea eta odolaren berotasuna sentitu duzu sabelpean, urdaileko alkoholarekin batera. Berehala bira eman du neskak eta kleenexaz xukatu dizu jaka. "Lehortutakoan ez zaik ia igarriko" esan dizu.

Gero biok elkarri begira-begira egon zarete eta irri erdi-pikaro, erdi-infantil batez burua alde bateratuz "Joango gaituk?" esan dizunean, zuk buruari beste aldera eragin eta desiraz eta kubaz gorrituriko begiez baietz erantzun diozu. Zigarrokina errauts-ontzian presaka zanpatu, bar-mutilari kubak eta neskaren kopakoa ordaindu, azken hurrupada hartu eta erreserbatura abiatu zara.

-II-

Arropak banan-banan gakoan eseki dituzunean, bideteen eserarazi eta gerripea xaboi likidoz eta ur beroz garbitu dizu aurretik eta atzetik. Erroiloko paper-zerrenda luze bat eskaini dizu xukatzeke. Ezpainak doi-doi ukituz, harrapaketa bezala, lehen musu laburrak elkarri eman, eta, esku oraindik hezeak elkarrekin gurutzatzean, munduko errugabetasun guztiaren aurrean bazeunde bezalako sentsazioa sumatu duzu. Basamortuaren zabala ikusi diozu begietan. Mihiek bata bestea ukitzean sentitu duzun kezka hauteman du Tamarak eta "Garbi nago, hor ditut azken miaketaren emaitzak" esan dizu, poltsa seinalatuz. Halere, zure erresistentzia ez dela erabat desagertu ohartzean jarraitu du "Hau ez zagok edonorekin egiterik. Baina hago lasai. Hitza ematen diat". Intziri erdi-ito tartekatuen ondotik hasperen sakon eta sarriagoak baizik ez dira entzuten gelako argi-ilunetan. Urrunean, maitasun ezinezkoaren kexuekin jarraitzen du cantaoreak. "Primeran ari duk" ari zara pentsatzen zure golkorako. Tamararen mihia jostari hasi zaizu ezkerreko belarriaren pean, lepoan barrena, bularretan zehar, tarteka hozkadatxoak eginez, zilborrean biraka, gogortu ahala hezeten hasi zaizun haragi hanpaturaino. Txorten tentea astiro mihiztatu dizu. Zuk gerritik heldu eta erdiratu nahi izan duzunean, berak eskua gau-mahaitxora luzatu, tiradera ireki eta zerbait hartu du bertatik; eskua ahoratu, hortzez tira egin eta bere sabelpera darama. Gero presioa eta Tamararen gorputza zureari nola itsasten zaion sumatu duzu, zure gerri-mugimenduak berearenekin doituz, bular batetik bestera sudurra eta ezpainak gero eta abiadura handiagoan aldatzen dituzun bitartean, zupaka eta usnaka, bi eskuez haren mehaken erritmo gero eta bizkorragoari jarraitzen diozula. Bira

eman eta bekokiko izerdi-tantak neskaren titi eta sabelean gero eta ugariago izartzen dira eta zuk bi eskuez haren ipurmamiak irmo oratzen dituzularik, ezpainak ezpain kontra, mihia barrenduz, gerri-kolpe gero eta astiro eta kontrolatuagoz hustu zara, asaskatuz, haren begi beltzetan basamortuarekin bat egin zaren.

Tamarak burua alde batera ezarri eta lepo guria utzi dizu, ile-mataza bihurri kiribildua apartatuz, pilpilka ari zaion zain hezean musu eman diezaiozun. "Ongi?" galdetu eta zuk baietz erantzun diozu buruaz. Orduan berak eskua luzatu pubisean beherantz, gomatxoa jaso eta tiratuz korapiloa egin dio paperontzian utzi aurretik, beste eskuaz paperezkoa toalla-erroiloari tiraizo bat egin eta haren zati bat xukatzeke eskainiz. Ondoren, irauli eta haren esku eraztuntsuari helduz, ohetxoaren eskuinaldean ahoz gora gelditu zara, sabaiko moldurei so. Bihotz-taupaden kontrapuntua eta urruneko cantaorearen maite-aiene luzea besterik ez dira entzuten.

Zigarro bat hartzera joateko keinua egin duzu, baina Tamarak ez duela erretzen konturatu zara. Uko egin diozu nahiz eta berak baimena eman dizun. "Bat gutxiago" bota diozu irribarrez. Isiltasuna urratu da eta hitzak gero eta erosoago jaulkitzen dira. "Aspaldidanik habil hemen?" galdetu diozu eta ezetz, etorri-berria dela erantzun dizu. Parisetik, noski, zeren Marokotik ia hogeita bost urte direla esan baitizu. "Aita merkatari aski aberatsa zuan, frantses ikastetxean ikasia eta Rabat, Casablancan eta Marrakechen egoitzak eta biltokiak zituena, nahiz eta azken horretan bizi ginen. Oihal eta alfonbrak saltzen aritzen zuan; Istiqlal mugimendu politikoa 1959an banatzean Mehdi Ben Barka, Abdullah Ibrahim, Abd ar-Rahim Bouabid eta beste batzuen gutxiengoan gelditu zuan. Horiek UNFFP (Indar Herritarren Batasun Nazionalaren frantses siglek direla argitu dizu) sortu zitean, mugimendu aurrerakoia, sozialismoa eta errepublikaren aldeko ideiak zituena. Muhammad V. erregea parlamentu bat prestatzen ari zuan, eta ustekabean, 1961ean, heriotzak harrapatu zian. Mulay Hassanek hartu zian ondorengotza. Horrek 1963an hauteskundeak egin zitian. Lehenagoko Istiqlal bi zatiek oposizioa eratu zitean eta FDIC edo Institutio Konstituzionalen Defentsarako Frontea, bereber- eta baserri-giroko taldeez eraturikoa gehienbat, erregeren aldeko frontea sortu zuan. Baina gauzek ez zitean funtzionatzen, point mort, impasse batean zeuden eta oposizioko askok ihes egin behar izan zitean Marokotik. Gehienak Parisera joan zituena. Aita kartzelan sartu zitean baina aurretik ama eta anai-arrebok Parisera bidaltzea lortu zian".

Harriturik zaude, ez zenuen espero toki honetan eta hain denbora laburrean Marokoren historiari buruz hainbeste datu entzuterik eta toki hartan. Desenkusak eskaini, gakotik zintzilik dauden fraketara joan eta Winston paketea eta txiskeroa hartu behar izan dituzu. Ke-zurrupada bat biriketari sakon sartu arteko onik ez duzu izan. "Nobela bat?" bota diozu ziplo. "Ez, historia luze eta triste bat. Ordua da eta joan egin behar diat" esan dizu. Prest zaude dirua ordaindu eta kontakizuna entzuten jarraitzeko baina ez zara ausartu proposatzera. "Beste batean gehiago. Etorriko haiz hurrengoan ere, ezta?" Eta zuri orduan "Noski. Oso atsegina izan dun" baino erantzun hoberik ez zaizu bururatu, eta bi bost milako kiribildurik utzi dizkiozu gau-mahaitxoko errautsontziaren azpian. "Atsegin diat neska hau", esaten duzu zeure baitarako.

Argien bristada gorri-urdinen deiari erantzun eta atera hurbiltzen zara. Helduleku biribilean eskua irmo pausatu, zabal ireki eta urrin-bafada sarkorra sudur-mintzetatik arnastuz, maitasun ezinezkoak kexuz kantatzen ari den cantaoreak ferekatu dizkizu belarriak, ilunpetan urrats arinak emanez zoazen bitartean. Aurrera egin ahala, barneko argitasun gorriak bikuale baten mamia bezala zabaltzen dizu ilunpea. Ispiluetako argi-joko artean ohiko gizaki garai makurtuak, inoiz etxera joan ez balira legez, eta minigonapeetako zango luze meheak nabarmentzen dira, beti gizonen belaunen bila. Zutabearen babesean, aulki garai biribiletik Tamararen begi beltz triste-antxe egiten dizute abegia eta alboan esertzen zara, irribarre egin eta begiratzeari utzi gabe. Bular eta izter perfektuen ezti-koloreak hegoaldeko lautada hareatsuak eta ile jori kulunkariak oasietako palmondoen galdorak oroitarazi dizkizute. Lehendabiziko asaldura-unea gainditu, zerbitzari irribarretsuari kuba bat eskatu (Bacardirekin, noski), eta fraken eskuin sakelan jadanik helduta daukazun Winston paketea atera, eta, zigarro bat astiro atera, kartoiaren kontra hiru kolpetxo eman eta txiskeroaren pare bat klikatekoz su ematen diozu, neskaren ezpain guriei begira. Tatianak ia ez du zirkinik egin. Ana portugesak bihurtu eta irribarre egin dizu begia keinatuz. Trago luze bat eztarrian behera gurkatu eta zigarroari hurrupada indartsu batzuk egin dizkiozu, kea ahotik eta sudurretik iraitzen duzun bitartean.

"Comment ça va, Imanol?" esan dizu neskak aulkitik jaitsi eta orratz-takoidun zapata beltzen gainean bi pauso doi emanez, bi eskuez ia automatikoki bularrei gora eraginez. "Zerbaitetara gonbidatzen nauk?" galdetzen dizun bitartean gerrikoan alkandora txukuntzen dizu, zilbor pareko botoiarekin jolas eginez. Begietara zuzen-zuzen so egiten dizun bitartean, gerrikitik emeki hurbildu eta eskua fraka gainean behera lerratu dizu, bere ezpainez zureak doi-doi ukituz, sudurrean arnas beroa sentitzen duzun bitartean. Adi-adi dagoen bar-mutilari buruaz keinu egin eta kristal landuzko botila laukitik likido ilun-urrekara isuri du kopa luzangara. Txin-txin egin duzue, inguruan giza mukulu borobilek neska meheengan kuzkurturik marmarrean dihardutelarik.

"Garbi-usaina darik" esan eta "ez dakik zenbat estimatzen dudan garbitasuna" gehitu dio. Zuk sorbaldak jaso dituzu, zer erantzun ez dakizula. Utzi egin diozu besoa gerrian zeharkatzen larruzko jakaren atzetik, bere mehakaren kontra emeki estutzen zaituen bitartean. "Ez izan lotsatia. Musu bat emadak" jaregin dizu beste eskuko hatzak lepondoko ile artean sartu eta buruko larruan atzazal-erpinekin hazka eginez. Zirrara elektrikoa sentitu duzu bizkarrezurrean behera. Cantaoreak hil egin nahi du saminaren saminez.

Tamarak ozta-ozta egin ditu zurrutada pare bat kopatik eta zeuk ere, izotz-koskoak hondoan tinkatu direnean utzi egin diozu edalontzikoa edateari. Buruaz keinu egitea aski izan duzu erreserbatura urratsak zuzentzeko neskaren atzetik.

Arropak esekitzea, bidetea garbitzea, lehen musu laburrak, eta, esku oraindik hezeak elkarrekin gurutzatzen, begietara begiratu eta betidanik ezagutu izan bazenu bezalako sentsazioak menperatu zaitu. Basamortuko gauaren sakona ikusi diozu begietan, izar eta guzti. Mihiek bata bestea ukitzean ezta eta gatza dastatu dituzu. Intziri erdi-ito tartekatuak ondotik

hasperen sakon eta sarriagoak. Urrunean, amodio ihes eginaren kexuekin jarraitzen du cantaoreak. "Gogoko diat neska hau" ari zara pentsatzen zure kautan. Tamararen mihia jostari hasi zaizu eskuineko belarriaren pean, lepoan barrena, bularretan zehar, titipuntetan tarteka txitximurtxoak eginez, zilborrean atzazal luze finaz kili-kili eginez, altxatzen eta jariatzen hasi zaizun haragiraino. Dardo gori hanpatua ukituka astiro iratzarri dizu, mihiaren joko sartu-irtenekoan. Gero gau-mahaitxora luzaturiko eskua, tiradera irekitzea, zerbait bertatik hartu eta ahoratzea, hortzez tira egitea eta bion pubiseko ileen artean ezkutatzea. Tamararen gorputza zureari itsasten, berarengana doitzeko zure gerri-mugimenduak, bular batetik besterako sudur-ezpainen gero eta abiadura handiagoa, zupadak-usnaketak, bi eskuzko oratze irmoa eta mehaken erritmo gero eta bizkorragoa. Irauli bat eta zure izerdiaren distira neskaren larru beltzaranean, eta bi eskuez haren ipurmamiak oretzen dituzularik, ezpainak ezpainei itsatsirik, mihia sakonean sartuz, gerri-kolpe gero eta bakan eta eutsiagotan hustu zara, arnasa sakon hartuz, haren haragi umeletik oasietako hazi-usain eta urrinak sudurretara iritsi zaizkizun bitartean.

Tamarak burua alde batera ezarri eta bere lepo guria utzi dizu, ile-mataza bihurri kiribildua apartatuz, pilpilka ari zaion zain hezean musu eman diezaiozun. "Hobeki?" galdetu eta zuk baietz erantzun diozu buruaz, nahiz eta ez duzun garbi jakin aurrekoan baino hobeki ala lehen baino hobeki zauden galdetu nahi zuen hitz horrekin. Une batean barrenean duzun guztia ez diozula adierazi sumatu duzu, motz geratu zarela. Orduan, berak irribarre triste-antxa egin eta eskua pubisean beherantz luzatu, amodio-hondar hezeak jaso eta bi eskuez tiratuz korapiloa egin dio paperontzian utzi aurretik; beste eskuaz paperezko erroilo-paperari tiraioa eta paper-zatiaz xukatzea. Gero bira eman eta haren esku bitxizatuari helduz, ahoz gora gelditu zara, kamainaren eskuinaldean, sabaiko moldurei begira. Bi bihotzen taupadak eta urruneko cantaorearen maite-mehatxu luzea bakarrik entzuten dira.

"Tamara?" esan diozu lehiaz gorputz beltzaran biluzia neurtuz, eta haren barruko misterioa zurrupatu nahi bazenu bezala: "Chapitre deux?" erantzuten dizu. Irribarre egin duzu ateraldi doiaren aurrean. "Parisera errefuxiatu gisa iritsi ginen puntuan gelditu gintuan, bai, aita Marokoko kartzelan eta ondasun guztiak konfiskaturik zegoela. Ez zituan urte errazak izan, nahiz eta laguntzaileraren bat edo beste inguruan izan. Bost urteak bete gabe neuzkaan baina ondotoxo gogoratzen diat zenbat etxe eta mansardaz aldatu ginen eta zenbat errefuxiatu eta aktibista etxetik iragan zen ere. Baina Muhammad Ufkir Jeneralak Mehdi Ben Barka bahitu eta desagerrarazi zuenean UNFP mugimendua lepamoztuta utzirik, gauzak laztu eta gogortu egin zitzaizkiguan. Ordura arte hartzen genuen laguntzatxoa ere eten egin zitzaiguan. Amak ahalegin guztiak egin zitian lana aurkitzen, baina ez zuan etxebizitzaren akura ordaindu eta bost seme aurrera ateratzeko adina. Gainera, buruan sartu zitzaion nik, zaharrena naizen aldetik, berak izan ez zuen aukeraz baliatu eta Zuzenbidea ikasi behar nuela. Bera gaueko lanean sartu eta ni fakultatean hasi nintzen urte berean gaixotu zuan biriketarik. Ahalegin guztiak egin genituan Marokoko adiskideen laguntza eskuratzen baina gure ezagun eta ahaide gehienak, gure modura, kartzelan edota ondasun konfiskatuekin zeudean, eta ozta lortu genian ama ospitalera eraman eta tratamendu garesti hura ezartzen hasteko beste diru batzea. Urte gogor haietan irauteko, haurra nintzela egunero ikusitako eta oroimenean grabaturik neuzkan basamortua eta palmondoak ikustera itzuliko nintzen esperantzak ematen zidaan indarra."

Tamararen begiak busti egin dira eta zuk izara-muturraz xukatu egin nahi izan dizkiozu. Izarapean uzkurto zarete biok eta basamortuko nomaden khayma batean bezala elkarrengana hurbildu. Esku-ahurraz laztan luze bat egin diozu masailean. Tamarak hasperen egin eta kontakizunaren hariari ekin dio berriz ere.

"Ama eriondo eta lanerako gai ez izaki eta ni fakultatean matrikulaturik nengoela erabakia hartu behar izan nian. Amaren nagusiarengana joan eta "lan estra" batzuk egitearen truke diru-laguntza agindu zidaan. Bezero hautatuak izaten zituan eta normalean ez nian ordu txikitari etxeratu beharrik izaten; han irabazten nuenarekin luxurik gabe baina ongi moldatzen gintuan. Gogor lan egin behar izan nian neure neba-arreba txikiagoak aurrera ateratzeko Pariseko *faubourg* ziztrinenetako batean. Horrela hasi ninduan "L'Étang Rouge"n, harik eta diploma atera eta ama erabat sendatu zen arte. Bitartean, Hassanek bere oposiziokoarekin erabili izan duen zakartze- eta biguntze-politika ezagun horietako batean, aita aske geratu zuan eta ama Marokora bidali nian hari laguntzera oso makal baitzegoan".

Neskari halako samin-antxa nabari zaio bere begi handietan. Arnasa hartzeko airea peitzen hasi zaizue izarapean eta brauki burugainetik atzeratu eta arnasa hartu duzu. Tamararen masailetan bi gorriune hautematen dituzu. Ez zaizu bururatzen zer galdetu. Beldur zara galderaren bat mingarri gertatuko ote zaion. Badakizu ohiko denbora pasatuxea dela eta "Joan egin beharko dinagu" esatea baino irtenbide hoberik ez zaizu bururatu egoerari amaiera emateko. Jakin-mina ez zaizu ahitu baina jarraipena —halakorik balego behintzat— hurrengorako uzteari deritzozu egokien. Zutitu, bidetean garbitu eta arropak janzten ari zaren bitartean, cantaorearen aiene luze goibela belarriratu zaizu eta neskaren begietako tristura lauso hura ulertzen eta basamortukume hura maitatzen hasi zarela iruditu zaizu. Gaur ez diozu dirua gau-mahaitxoan utzi, arretaz tolestu eta eskura eman diozu, hatz luze zainduaz estutuz, besoa gerritik pasa eta bularrak paparraren kontra emeki estutu dizkiozun bitartean, bekokiko ximurretan musu emanez. "Gehiegi gustatzen zaidak neska hau", esan duzu zure golkorako.

-IV-

Argien bristada gorri-ilunak, atearen kirrinka ia hautemanezina, gorri-ilunpeko cantaorea zutabeak babesturik Tamararen bi begi handi triste-antxak itxaroten, bi eskuak altzoan dituela. Sartzen ikusi zaituenean, aulkitik jaitsi eskua, musu bat ezpainetan eman eta erresebatuta joango al zareten galdegin dizu. Gaur ez dizu kopakora gonbidatzerik eskatu. Bar-mutila harritu samarturik begira gelditu zaizue. Tamarak atea itxi eta zapata-kordela askatzeko ohean eseri zarenean, jadanik ez zen cantaorea ari, "un amor para morir" ozenki errepikatzen zuen emakume bat baizik. Ohiko abluzioen ondoren, elkarri eskuak hartu eta burutik oinetaraino begira-begira egon zarete. Gero ezkerreko begian musu eman diozu, gero eskuinekoan, azkenik ezpainak doi-doi ukituz, kokotsean behera musuka eta muinka jaitsi zara; ezkerreko titipuntan hiru musu eman dizkiozu, eskuinekoan beste hiru eta zilborrean pausatu zara, sabeleko arrakalatxo ia ikuste-zinez jabetu zaren arte. Behetik gora begiratu diozu eta

berak buruan darabilzuna igarri balizu bezala erantzun dizu irribarre eme batekin eskuez gerrialdea leunduz. Zuk bere izter-arteko goroldio beltzean murgildu duzu aurpegia, gatz eta urrinezko sudur-arnasaldi batean.

Eskutik heldu eta ohean etzan denean, bigunki bira ematera behartu duzu eta sorbaldetatik hasi eta poliki-poliki hatz-puntez masajea ematen hasi zatzaizkio. Muskulu tenkatuek nola amore eman duten ohartu zara eta neskak begiak itxiz bere gorputza bertan behera nola utzi duen sumatu duzu. "Ez nitek amaitzerik nahi" esan dizu. Baina bere profesionaltasuna berreskuratuz bezala, bi ipurmami trinko biribilei eragiten hasi da. Zuk bi besoak zabaldu eta zeure ahurretan hartu dituzu haren eskugainak, mihiaz garondoa milikatu diozu delikatuki, behin eta berriz temoso erortzen ziren ile-matazak puzka haizaraziz, harik eta zure haragi goritiko isurkari beroak arte haren izter-aldeak erregariatu dituen, besarkada estu batean luzaroan gelditzeko.

Gaur zeuk hartu diozu aurrea "Chapitre trois?" esanez, eta umore-puntta bat erakutsiz. Gero berak bideteen gerripea eta bularraldea garbitu, bodya eta botak jantzi eta ispilu lurrinduaren aurren makilatu eta ezpainak pintatzeari ekin dionean jaregin dizu:

"Ez zakiat inoiz esan diadan orain arte, baina alaba bat zaukaat. Orain amonarekin zagok Marrakechen. Oporretan ikusten diat. Maitemintze "fou", zorro bat izan zuan. Laster bihurtu zuan krudelkeriazko harreman zail eta azkenean, kostata baina eten egin behar izan nian. Ohikoa. Aspaldian ez diat bere berririk eta Fatimatxoz ere ia ez duk inoiz arduratu."

Gero isilune bat eta irriño triste-antxa egin du. Eta Marokoko familiaz galdetu diozunean, bekokia ilundu egin zaio:

"Aita ondasunak berreskuratzen gogoz ahalegindu zuan, amaren laguntzarekin, baina behialako bizimodu eroso hura ez zian inondik ere lortu, oso jota irten baitzen kartzelatik. Ama bakarrik eta egoera ekonomiko larrian geratu zuan Marrakecheko etxean. Orduan sartu ninduan bete-beteen lanbide honetan, abokatu gisa lana aurkitzeko zenbait ahalegin alferrik egin ostean. Orain gure ondasunen auzia Marokoko abokatuen eskuetan zagok eta egunen batean aldeko epaia izatea espero diagu. Ez nik bakarrik, baita Tunisian eta Saudi Arabian barreiatu ditudan beste neba-arrebek ere bai. Albiste hori ekarriko didan gutuna jasotzeko esperantzak jaikiarazten naik egunero ohetik. Horrek lanbide hau uztea, Fatimatxorekin betiko elkartzea esan nahiko likek. Eta lehengo ondasunen parte bat bederen berreskuratuz gero, bizimodu berri bat hastea ere bai."

Ez diozu aitortu nahi izan zeure buruari baina zelati sentitu zara basamortuaz, palmondoez eta Fatimatxoz, zeren agian egunen batean Tamara betiko lapurtuko dizutela pasatu baitzaizu burutik. Hala ere, barrenekoa ezkutatzuz "Hori zoragarria litzatekeen" adeitsu bat xuxurlatu diozu belarrira, eta kokotsetik helduz musu eman diozu ezpainetan, mihia hortz zurietaraino helarazten ahaleginduz. "Ezingo nitek hau gabe bizi", jaregin duzu ahopean.

Argiek bristada gorria bakarrik egiten dute. Argi urdinaren instalazioa funditu egin bide da. Inoiz baino goizago eta dotoreago zoaz: italiar zapata bigunak, zetazko alkandora beltza, antezko jaka laxoa; ilea ongi atzerantz orraztua eta Trusardi, zure kolonia gogokoenaz ongi urrineztaturik. Umore onean zoaz eta zeure golkorako pentsatzen duzu "Gaur ordu bete ordainduko zioat". Heldulekuari brauki eragin eta oldarrez sartu zara. Pausoak zenbatuak eta distantziak neurtuak dauzkazu. Ezker-eskuin ohiko mukuluak, zango meheak, apalak botila lerrotu eta kristalezko edalontziekin, bar-mutila aldizka serio, aldizka irribarretsu eta beti erne eta adi inguruko zirkin guztietara. Tatiana bere begirada nagiarekin. Portugesa bere izter sendoak erakusgai. Zutabe atzeko babesgunera jo duzu zuzen-zuzenean baina bi aulkiak huts baizik ez dituzu aurkitu. Cantaorearen ordeztan Leonard Cohen ari da iraganeko maitasun bat deitoratzen. Fraka ongi plantxatuei belaunetatik tira eginez eseri zara aulki garaian, zapaten ebillei bristada gorriak eraginez. Bar-mutilari keinu bat egin eta "Glenfiddich izan dadila" esaten diozu. Kristal landuzko edalontzi moztaka bat atera, whiskya isuri eta aurpegira begiratu izotz-koskoak ezartzen hasten zaizu. Hirugarrenarekin planto egiten duzu. Gero jakaren patriketan txapaka ibili eta tabakorik gabe zaudela ohartzen zara. "Winston" eskatzen diozu eta badakizu amerikarra eta zorro malguan ekarriko duzula, ohi bezala. Paketea mugimendu doi eta bizkorrez zabaldu eta urratu eta zigarroa ateratzen hasi zerenerako prest zeukan bar-mutilak urre koloreko txiskeroa garretan. Zigarroa ezpainetan duzula makurtu eta kea sudurretatik kanporatuz "Milesker" esaten diozu, ezker-eskuin begiratu. Trago luzea egin diozu whiskyari. Gero aulkian bira egin eta bizkarrez barrara jarririk, zutabe ondotik nabari den gela argi-ilundua miatzen duzu. Tatiana, portugesa eta ezagutzen ez duzun beste neska argal hezurtsu bat ia gerrirainoko ile horailarekin bezero batekin barre-algaraka. "Tamara?" pentsatzen duzu "lanean ariko duk". Eta pentsamendu horrek halako gazi-gozo morbozko bat sentiarazten dizu. Orain Tamarak bere bular beltzaranak zanpatuz beso artean daukana nolakoa den imajinatzen saiatzen zara. Amorrutako kolpe bat sentitu duzu. Bat-batean amodioa egiten ari zaion gizaseme bat imajinatzen duzu, baina aurpegi ezabatuarekin. Beste trago bat hartu eta zigarroari beste hurrupada bat egiten diozu. Amorrutako gozamen eta alkoholezko zorabio bat sentitzen duzu zintzurretatik sabelperaino. Erreserbatuko ate aldera begiratzen duzu, maratila noiz bira egingo, zain-zain. Bezero berriren batek sarrerako ateari kirrinka ia hautemanezina ateratzen dion bakoitzeko, bihotzak zausk egiten dizu. Puska batean edalontziaren hondoko izotzak biraka erabili eta azken tragoa egin bezain laster bigarren whiskya "Glenfiddich, noski" esanez eskatzen duzu. Tamararen aurpegia eta bezero aurpegi gabearena gurutzatzen zaizkizu burutik. Konpentsatzeko zeure buruari ahopean esan diozu "Ez dio kapitulurik kontatuko. Pas de chapitres!".

Irekitzen da erreserbatuko atea, zabuaz ia galdu egiten duzu oreka aulki gainean eta zutik jartzen zara. Atetik baserritar ibilerarekin hirurogei bat urteko gizon moztaka tabardodun bat atera da buruan txapela tinkatuz. Ezker-eskuin begiratu bizkorrak egin eta kanpoko atea gainditu duenean, neska ile horail mamitsu bat agertzen da poltsa sorbaldan tinkatuz. Sor eta lor geratzen zara. Bira eman eta bar-mutilari galdetzeko keinua egiten duzu. Baina Tamara non den galdetu ordeztan, nola deritzon galdetzen diozu neskari. "Olga. Errusiarra

omen". Badakizu berria dela eta agian Tamararen hutsunea betetzera etorri dela pentsatzen duzu. Baina Tamara non den galdetu baino nahiago duzu zalantzan iraun, erreserbatuko maratilaren kirrinka entzuten den bakoitzean neskaren ile bihurri kiribildu zabukaria agertuko dela pentsatuz. Edo komuneko eskaileretan behera jaitsiko dela. Edo kanpoko atearen kirrinka ia hautemanezina entzun eta argi-bristada artean sartuko dela, goiz ibiltzeagatik aurea hartu diozulako. Edo gaixo dagoela eta etxean geratu dela. Edo edozergatik jai hartu duela... Baina barrenean gutunaren susmoa duzu eta ez zara zalantza uxatzera ausartzen.

Zutabeak babesturik dagoen aulkira frakei tiraizorik egin gabe igo, Winston bat piztu eta bi eskuak antezko jakaren sakeletan dituzula edalontziko izotzean whiskyaren mugimenduari begira gelditu zara. Leonard etsipenak jota baina presarik gabe ari da. Olga, errusiarra begira daukazu, bokilla atera, zigarro luze bat sartu eta ezker-eskuko hatz luze bitxiztatuetan hartuz delikatuki erretzeari ekin dion bitartean, zangoak bi aldiz gurutzatu ditu, kulero zuriak erakutsiz. Zigarroari bizpahiru hurrupada labur eta arin egiten dizkiozu eta urduri zaudela antz eman dizu. Aulkitik emeki-emeki lerratu eta ohartzen zarenerako alboan daukazu ukondoan: "Zer moduz? Olga nauk. Eta hi?" Ez daukazu berriketarako gogorik, nahiago duzu bakarrean egon mintzen hasi zaizun zeure zalantzarekin. Baina Tamararen lankide bat dela ohartu zara eta gutxienez adeitsu izaten saiatu zara, esperantzarik eman gabe. "Hainbestean. Adiskide baten zain nago". Neskak aurpegia supituki ilundu eta "Ah!" esaten dizu. "Iritsi bitartean lagun hazaket. Gonbidatzen nauk?" ekiten dio berriro. Zuk une batetik bestera Tamara agertuko dela sinetsi nahiago izan duzu. "Eskerrik asko" esan diozu buruaz ezezkoa emanaz. Olgak bira eman eta barraren beste muturrera jo du bokillako zigarroari hurrupada bat egin eta surtidore baten modura kea sabairantz jautiz. Zu zutabearen babesean whiskya edaten eta Winstonak hurrupaka erretzen gelditzen zara basamortuak gauez zer itxura ote duen, palmondoak izarpean nola kulunkatzen diren pentsatuz. Eta azkenean, Tamararen begi beltz handiak eta palmondoak hondarrezko ekaitz batek lausotu eta nahastu dizkizunean zure kaskezurrean eta "Datorren ostiralean itzuliko nauk, badaezpadan" marmarka jaregin duzunean, orduantxe ohartu zara seko maitemindurik zaudela Tamaraz, basamortuko neska beltxaranaz, nahiz eta agian sekula gehiago ikusiko ez duzun".